

# Taldean lan egiteko arauak

\*\*\*

- Guztiok batera egingo dugu lan
- Errespetu eta gogoekin egingo dugu lan
- Arazoak guk konpontzen saiatuko gara

2. eranskina

Izena:

Data:

ALDAKETA KLIMATIKOA

1. Esan ondorengo esaldiak egia ala gezurra diren:

Eguraldia aldakorra da, eta klima berriz egonkorragoa..... (Egia / Gezurra)

Momentu batean atmosferak duen egoerari eguraldia deitzen diogu..... (Egia / Gezurra)

Zonalde batean normalenak diren kondizioei klima deitzen diogu..... (Egia / Gezurra)

2. Nork eragin du Aldaketa Klimatikoa? Azpimarratu aukera zuzena:

Gizakiak

Eguzkiak

Kotxeek

3. Aipatu Aldaketa klimatikoa eragiten duten hiru kausa:

.....  
.....

4. Aipatu Aldaketa klimatikoaren hiru ondorio:

.....  
.....

5. Pertsonok egiten ditugun ekintza guztiek ala batzuk bakarrik eragiten diote naturari?

Eman adibide bat:

.....  
.....  
.....

3. eranskina

Izena:

Data:

ALDAKETA KLIMATIKOA

1. Esan ondorengo esaldiak egia ala gezurra diren:

Eguraldia aldakorra da, eta klima berriz egonkorragoa..... (Egia / Gezurra)

Momentu batean atmosferak duen egoerari eguraldia deitzen diogu..... (Egia / Gezurra)

Zonalde batean normalenak diren kondizioei klima deitzen diogu..... (Egia / Gezurra)

2. Nork eragin du Aldaketa Klimatikoa? Azpimarratu aukera zuzena:

Gizakiak

Eguzkiak

Kotxeek

3. Aipatu Aldaketa klimatikoa eragiten duten hiru kausa:

Ozono kapa suntsitzea, basoak suntsitzea eta ur asko gastatzea.

Basoak suntsitzea, ura edatea eta kotxeak erabiltzea

Bizikletaz ibiltzea, elektrizitatea aurrezte eta birziklatzea

4. Aipatu Aldaketa klimatikoaren hiru ondorio:

Tenperaturak igotzea, poloak urtzea eta basoak desertuak bihurtzea.

Tenperaturak jeistea, itsasoa izoztea eta elur gehiago egitea.

Tenperaturak igotzea, poloak izoztea eta baso gehiago egotea

5. Pertsonok egiten ditugun ekintza guztiek ala batzuk bakarrik eragiten diote naturari?

Eman adibide bat:

.....

.....

.....

## Arduradun Berdearen taula

	Birziklapena	Ura	Argia	Gela
Izena 1				
Izena 2				
Izena 3				
Izena 4				
Izena 5				
Izena 6				
Izena (...)				

Taula hau betetzea izango da arduradun berdearen egin beharra. Ezkerraldean gelako ikasleen izenak idatziko dira, eta ikasle bakoitzak, rola betetzea tokatzen zaion astean zehar, egunero etxera joan baina lehen ea ura, argia eta gelaren txukuntasuna zaindu den apuntatu beharko du, borobiltxo berde bat eginez baiezkoa bada eta borobiltxo gorri bat eginez kontrako kasuan. Birziklapenaren kasuan, egunean zehar hustu diren kontenedoreen koloreko borobiltxo bat egingo dute.

Astero astero arduradunez aldatuko da ikasle guztiek betetzeko rola.

Denbora tarte ezberdinetan zehar, taulari buruz hitz egingo da, emaitzak ikusi eta zer hobetu daitekeen eztabaidatzeko.

5. eranskina

	1	2	3	4
Parte hartzea	Ez dute guztiek batera lan egin, taldeko kide batzuk ez dute lan egin nahi izan	Guztiek egin dute lan baina bakoitzak bere kontura, eta ez talde baten moduan	Guztiek egin dute lan baina talde barnean talde txikiak sortu dira	Guztiek egin dute lan eta gainera guztiok batera
Errespetua	Ez dute errespeturik eduki euren artean ezta irakaslearekin	Taldeko klima orokorrean errespeturik gabekoa izan da euren artean eta irakaslearekin	la denbora guztian izan dugu errespetua gure artean eta irakaslearekin okasio puntual bat edo bitan izan ezik	Denbora guztian izan dute errespetua euren artean eta irakaslearekin
Arazoak konpontzen	Arazoak eduki dituztenean ez dira saiatu konpontzen eta lan egiteari utzi diote	Arazoak eduki dituztenean saiatu dira konpontzen baina ez konponbide bat aurkitu arte	Arazoak eduki dituztenean saiatu dira konpontzen okasio puntual bat edo bitan izan ezik	Arazoak eduki dituztenean konpontzen saiatu dira eta ez dute etsi
Eztabaidak	Ez dute eztabaidarik izan guztiok banaka egin dugulako lan	Eztabaidek haserre bukatzera eramane dituzte taldearen dinamika oztopatuz	Eztabaidek batzuetan lagundu diete erabakiak hartzen	Eztabaidei esker ados jarri dira euren lanarekiko
Autonomia	Arazo bat izan duten bakoitzean lan egiteari utzi diote	Edozein arazo izan dutenean irakasleari laguntza eskatu diote	Arazoak taldean konpontzen saiatu dira baina irakaslearen laguntzarekin	Irakasleari euren kabuz zerbait egiteko ezintasuna izan dutenean bakarrik eskatu diote laguntza

TALDE LANA

TALDEAREN IZENA:

PARTAIDEAK:

OHARRAK:

## 6. eranskina

	1	2	3	4
Argitasuna	Diskurtsoa desordenatua da eta ez da hautematen ideien arteko erlazioa	Hautematen da ideiak ordenatuta daudela baina ez da gai diskurtso koherente bat sortzeko	Diskurtsoa ordenatua eta argia da baina zenbait aspektu ez dira koherenteak izan	Diskurtsoa argia eta ordenatua da, azalpen koherentea osatuz
Errespetua	Ez du azalpena eman nahi izan eta bere taldekide eta entzuleei bere lana aurkezteari uko egin dio	Azalpenaren orduan ez du bere eginbeharrarekiko ezta entzuleekiko konpromisorik erakutsi	Bere azalpenaren orduan errespetuz portatu da baina beste taldekideen txandan ez da behar bezala portatu	Errespetuz portatu da bere txanda zenean eta baita bere taldekideena zenean ere
Intonazioa	Diskurtsoan zehar lekuz kanpo zeuden intonazioak erabili ditu, barrea eragiteko edo beste helburu batzuekin	Diskurtsoa monotonoa izan da uneoro eta ez da saiatu intonazio egokiago bat erabiltzen	Intonazio nahasiak erabili ditu, bolumen altuak eta baxuak alternatuz, edota intonazio monotonoagoak alternatuz	Intonazio egokia erabili du, bolumen eta tonuan diskurtsoaren tokira eta entzuleei egokituz
Gorputz jarrera	Lekuz kanpo zeuden keinua egin ditu, entzuleei errespetu faltak erakutsiz	Gorputz jarrera txarra izan du, entzuleei begiratu gabe, bizkarra emanez, gorputz enborra ez du mugitu...	Entzuleei zuzendu da, baina ez ditu erabili eskuak edo besoak diskurtsoa indartzeko	Gorputza ondo erabili du, ez da geldirik egon eta keinu ezberdinak erabili ditu diskurtsoa indartzeko
Erregistroa	Hitz lizunak eta iraingarriak erabili ditu	Oso diskurtso informala erabili du, muletilla asko erabiliz, lekuz kanpoko espresioak erabiliz, etab.	Orokorrean erregistro egokia erabili du, baina uneren batean erregistrotik atera da	Zuzena eta egokia izan da, formala eta errespetuzkoa
Interakzioa	Entzuleei era lizunean edo errespeturik gabekoan zuzendu zaie	Entzuleei utzikeriarekin zuzendu zaie	Entzuleei zuzen zuzendu zaie	Entzuleei adeitsu eta konpromisoz zuzendu zaie
Egokitasuna	Diskurtsoa ez da egoerari egokitu, ez zuen gaiarekin, tokiarekin ezta entzuleen ezaugarriekin loturarik	Diskurtsoa gaiari loturik zegoen, baina entzuleak ez dira kontutan hartu	Diskurtsoa gaiari loturik zegoen, baina entzuleen jakintza mailari eta interesekin ez dira oso ondo lotu	Diskurtsoa gaia eta entzuleen behar eta interesekiko koherentea izan da
Errekurtsoak	Diskurtsoan zehar lekuz kanpoko elementuak erabili dira	Diskurtsoan zehar ez da bestelako errekurtsorik erabili	Diskurtsoan zehar erabili dira errekurtsioak, baina ez da hauekiko interakziorik egon	Diskurtsoa indartzeko errekurtsioak erabili dira, bere lana, eskemaren bat, muralen bat, eta koherentea izan da hauen erabilera

7. eranskina

**Izena:**

**Ebaluazio fitxa:** proiektuan zehar zuen ohiturak aldatu dira? Ondorengo galderei erantzun, 1etik 5era esaldiarekin ados zaudeten neurtuz. 1 puntuaziorik baxuena izango da eta 5 berriz altuena.

Zaborra sortzen dudanean dagokion kontenedorera botatzen dut	
Materialak berrerabiltzen ahalegintzen naiz	
Behar dudan ura bakarrik erabiltzen dut	
Argia eta elektrizitatea aurrezten saiatzen naiz	
Ez dut zaborra komunera botatzen	
Ikastola garbi mantentzen ahalegintzen naiz	
Nire lagunek ere natura zaindu dezaten ahalegintzen naiz	
Etxean ere ikastolan ditudan ohiturak ditut	

Zer egiten dut orain natura zaintzeko lehen ez nuena egiten?

.....

.....

.....

.....

.....

## 8. eranskina

### ESKU HARTZEAREN DENBORALIZAZIOA

Aurrez estimatutakoa

1. eguna (17/03/06) 45´	2. eguna (17/03/08) 45´	3. eguna (17/03/10) 45´	4. eguna (17/03/15) 45´	5. eguna (17/03/17) 45´	6. eguna (17/04/28) 45´
1. Aurreideiak jakiteko fitxa (1. eranskina) egin	1. Maila kontzeptuala landu ppt batekin. 2. Eztabaida 3. Talde proposamenak	1. Talde lana	1. Talde lana 2. Talde lan koebaluaketa (4. eranskina) 3. Presentazioa prestatu	1. Presentazioak 2. Beste gela batzuei presentazioa egingo zaien erabaki 3. Fitxa berriro egin (12. eranskina)	1. Autoebaluazio fitxa bete (2. eranskina) 2. Arduradun berdearen inguruan hitz egin 3. Akats eta proposamenei buruz eztabaidatu

Nola gertatu zen

1. eguna (17/03/06) 45´	2. eguna (17/03/08) 45´	3. eguna (17/03/10) 45´	4. eguna (17/03/13) 2 ordu eta 15´	5. eguna (17/03/15) ordu 1 eta 15´	6. eguna (17/04/28) 45´
1. Aurreideiak jakiteko fitxa (1. eranskina) egin	1. Maila kontzeptuala landu ppt batekin. 2. Eztabaida 3. Talde proposamenak (*1)	1. Talde lanen gaien banaketa egin	1. Talde lana (*2) 2. Talde lan koebaluaketa (4. eranskina)	1. Talde lan batzuk bukatu 2. Fitxa berriro egin (12. eranskina) 3. Talde lan koebaluaketa 4. Arduradun berdearen rola azaldu	1. Autoebaluazio fitxa bete (2. eranskina) 2. Arduradun berdearen inguruan hitz egin 3. Akats eta proposamenei buruz eztabaidatu

\*1: Taldeek ez zuten proposamenik egin, ez ziren gai izan hausnarketa bat egin eta konponbideak bilatzeko. Hori dela eta nik proposatu behar izan nituen gaiak (11., 12., 13. eta 14. eranskinak)

\*2: Talde lana bukatu eta gero, presentazioak ez egitea baloratu zen, hasiera batean planteatu zen bezala, ondorengo arrazoiengatik:

- Maila kontzeptualean oso garapen txikia izan zuten. Nahiz eta lehen helburua lortutzat eman, fitxetan oinarritutako emaitzak ikusita, gaia osotasunean ulertzea oso zaila egin zitzairen, abstraktuegia agian, eta landutako kontzeptuetatik haratago joateko zailtasun handiak zituzten. Honek, kontzeptu berak talde lan ezberdinetan behin eta berriz errepikatzea eragin zuen.
- Egun batetik bestera, aurreko saioan landutako ezagutzez ahazten ziren gehienak.
- Barneratutako ezagutzen inguruan euskaraz eta argitasunez espresatzeko zailtasun handiegiak zituzten.
- Talde lan fasea oso azkarra eta kontzentratua izan zen, dena egun berean izan baitzen, eta honek lan eta talde dinamiken inguruan kontziente izan, hausnartu eta hobetzeko aukerak mugatu zituen.
- Bi taldek, ez zuten bigarren fase osoan taldean lanik egin.



9. eranskina

		Lurraren Arduraduna			Lurraren A		
		Ardurak					
Izenak		BIRZIKLATU	GELA	OURA	ARGIA		
ASIER							
UNAI							
OIHANE							
NASERDIN							
NOA							
MELISSA							
FLAVIO ANIER							
XABIER	✓						
LAMIS							
ALEX							
MARIBEL							
MARYAM							
PRAISE							
MAHIA							
MIKEL							
ZAINAB							
EKAIN							
ALEJANDRO							
JUAN PABLO							
IBRA							
RAMA							
ANQI							
YARRIE							

# A Eginbeharra

*Kaixo Lagunok!*

*Ni Ama Lurra naiz, eta dakizuen bezala gaixorik nago. Horregatik nator Mujika Eskolara, zuen laguntza behar dut eta. Ikusi dut zuen ikastetxean, zuen gelatik hasita, ez duzuela arduradunik Lurra osasuntsu mantentzeko ohiturak zaintzen dituenik: berziklatu, berrerabili, ura zaindu, etab. zuek dakizuen bezala.*

*Zer iruditzen gelan arduradun mota berri bat sortzen badugu, ohitura guzti horiek zaintzeko? Gelako lagun guztiek lagundu ahalko duzute!*

*Zuengan konfidantza dut eta zuei utziko dizuet lan hori pentsatu eta egitea, ados? Nik ideia batzuk emango dizkizuet, baina zuengandik ere asko espero dut!*

*Eskerrik asko zuen laguntzagatik!*

*Ama Lurra*

- Zer ohitura hartuko ditugu?
- Zer egingo du arduradunak?
- Non apuntatuko dugu ohiturak betetzen ditugun?
- Nola jakingo dugu egun bakoitzean nori tokatzen zaion arduraduna izatea?
- Gelan zerbait jarriko dugu ohiturak mantentzeko? Kontenedoreak esaterako?

# B Eginbeharra

*Kaixo lagunok!*

*Ni Ama Lurra naiz eta dakizuen bezala gaixorik nago. Horregatik nator Mujika Eskolara, zuen laguntza behar dut eta. Ikusi dut zuen ikastolak 100 urte bete dituelako abesti bat egin diozutela, eta inbidia apur bat eman dit.*

*Zer iruditzen zaizue gure planeta zaintzeko animatuko gaituen zerbait egiten baduzue? Abesti bat izan daiteke bai, edota antzerki bat, bideo bat edo zuei bururatzen zaizuen edozer. Ondoren ikastolari erakutsi ahal izango diozue guztion artean gauzak hobeto zaintzen direlako.*

*Ziur nago ideia oso politak izango dituzuela eta gure Lurra zaintzen lagunduko duzutela. Kartaren azpian nire ideia batzuk utziko dizkizuet.*

*Eskerrik asko zuen laguntzagatik!*

Ama Lurra

- Zein izango dira abestiko/bideoko/antzerkiko mezua eta ideia nagusiak?
- Zer material erabiliko duzute?
- Euskaraz izango da, ezta?

# **C Eginbeharra**

*Kaixo lagunok!*

*Ni Ama Lurra naiz eta dakizuen bezala gaixorik nago. Horregatik nator Mujika Eskolara, zuen laguntza behar dut eta. Ikusi dut zuen pasilloetan, geletan, komunean, jangelan... saiatzen zaretela ni zaintzeko ohiturak izaten, baina batzuetan ahaztu egiten zaizkigu.*

*Zer iruditzen zaizue ikastola apaintzeko ohar eta kartel batzuk jartzen baditugu, gure Lurra zaindu behar dugula gogoratu? Horrela guztiok kontu handiagoz zainduko dugu gure planeta.*

*Ziur nago ideia pila bat izango dituzuela eta ikastola polit polit apainduko duzutela. Nik laguntzeko kartaren amaieran ideia batzuk utziko dizkizuet.*

*Eskerrik asko zuen laguntzagatik!*

Ama Lurra

- Nola lortuko dugu mezuak guztiok ikustea?
- Zer material erabiliko dugu? Berrerabiliak agian?
- Mezua eta hau jartzen dugun tokiak zerikusia izan beharko du, ezta?
- Ziur beste irakasleek, garbitzaileek, jangelako arduradunek, zuzendariak... ideia gehiago emango dizkizuela. Galdetu beldurrik gabe!

# D Eginbeharra

*Kaixo lagunok!*

*Ni Ama Lurra naiz eta dakizuen bezala gaixorik nago. Horregatik nator Mujika Eskolara, zuen laguntza behar dut eta. Ikusi dut zuen pasilloetan zehar oso mural politak dituzuela, emakumeei eskeinitakoa esaterako, baina ez duzue bat ere gure planetari buruzkoa.*

*Zer iruditzen zaizue laugarren pisuan eskaileren ondoan dagoen espazioan mural bat egitea, lurra zaintzeko helburuarekin? Txaberrekin hitz egin dut eta ideia bikaina iruditu zaio.*


*Badakit artista batzuk zaretela eta zuen eskuetan utziko dut eginbeharra, ziur nago oso ondo egingo duzutela! Kartaren amaieran, ideia batzuk utziko dizkizuet, espero dut laguntzea!*

*Eskerrik asko zuen laguntzagatik!*

Ama Lurra

- Zer mezu nahi diozute eman ikastolari?
- Zer material erabiliko duzute? Material berrerabiliak agian?
- Marrazkirik egingo duzute?
- Erabili zuen irudimena!

14. eranskina



15. eranskina

